

Euzkadi'ko Jaurlaritza 1936-1965

Tierra Vasca, 113. zk., 1965-11: 3.

Zoritxarrez, euskotarrok ez gera alkarrekin, anaikor, ibiltzekoak izandu. Gure ixtori guzia anai arteko berekoitasun goraberaz eta burrukaz betea dago. Ta orrek mugatu du, zoritxarrez, gure erriaren izatea.

Noizpait erri-erri bezela sentitu ta alkartzera eldu geranean 1936`go guda garaiean izan da.

Emen ere ba dago zer esana. Karlistak (karlista euskotarrak) aurka genitun, eta gure arteko batasunak ere ba zituan bere utsak; bañan ala ere eusko kemen bulartsu batek erri men berri batekin bildu giñun. Nere ustez, garai onetan lertu zan gure artean egiazko erri-izateko kontzientzi berri bat; erri izateko itxaropen nabarmen baten jabe egin giñan. Eta giro eder onen ondore bezela, igaliak ontzen diran bezelako izamen indarrarekin, jaio zan Euzkadi'ko Jaurlaritza, gure erriak aspaldian izan duan lenengo egitazko burupidea.

Egun gogorrak ziran aiek; Euskal Erri'ko malko ta odolaren iturriak zabal-zabal irikiak zeuden; arerioa makinez indartsu zan, eta gure makina-kemenak, gutxi, gañerantzeko Kemenak ez baitira guda garaiean naikoak, eta ez genduan nai genduan egiterik izandu, al genduan baizik; bañan egin zana garbi ta zuzen eta kementsu egiña izan zan; euskotarren naiz ta jokabidea gizarte guziaren aurrean larru-bizirik zan, eta ez genduan lotsarik bildu, errespetoa baizik.

Akatsak ere izango dira tarteka, utsak zerbait egiten dutenen lagun izaten dira beti ta; euskotar batzuek (lanik egin ez dutenak geien) ba dute orain ere, gure ixtori luzean agertu oi izan dan bezela, egin dan guzirako espa; ori ugaria, ta merkez, baita. Egin zan baño geiago edo obeto egiten jarriko nituke nik minkurti oiek orretarako erarik ba lego! Egin danari errespetoa ta txaloa zor diogu; asmoa ona izan zala agerian dago; azkatasunaren alde jokatu zuten euskotar guzien izenean leial jo ziotela ere bai; egin bear zana egiteko gure gizonak kementsu jokatu zutela dudarik ez; eta orretaz gañera esku garbiak izan zirela ere bai.

Zer geiago eskatu lezake gizonak gizonari?

Ez det uste gizon oiei itzalgarrri dan ezer ukatu genezakenik; nik ez diet ukatuko beintzat. Besteruntz, errespeto aundia diet.

Neretzat, irabazi edo ongai ederrena *euskotar guzien* jaurlaritza izatia izan da; orrek irki baitio gure erriari norabait eltzeko bide berria.

Gero-gerokoak; guda bukatu ezkeroztik igaro diran ogei ta sei urte oietan, beste burruka berri-berria sortu da. Gure erriari milla zuloetatik tiroka ari dira. Batzuek betiko arerioen betiko eskopeta zulo beltz aietatik datoz orain ere; beste batzuek usterik gutxiena degunetik, eta tiro batzuek nundik datozten ere ez dakigu. Guda arrotsa da au. Zalla. Aldaketak or datoz, gain bera, arri zenoi ikaragarriak ba lira bezela; ta zer puzkatu duten edo zer txetu dutenaren berri gutxi izaten degu, askotan ez baita ori kontatzeko

iñor bizirik (kontzientziz bizirik) geratzen. Guda arrotsa, bai, euskotarrok supritzen ari gerana; askotan aurrera dijoanik eta iñor iltzen (kontzientzian iltzen) ari danik ere ez gera konturatzen.

Eta ala ere, guda au aspaldi bukatu ba litza bezela aritzen gera izketan, eta ekintzetan!

Sakabanatzen ari gera!

Ta gudarik ez da bukatu!

Euzkal Erria or dago, zai, nekean, eta batzuetan il zorian. Guda bideak aldatzen ari ba dira, guk gure bideak neurri berean aldatu bearrean arkitzen gera. Erriak aldaketaren zztada artu du, ta erakutsi du. Ez dira abertzale guziak iritxi berdiñekoak. Batzuek ustez obeak, besteak ustez okerragoak, asmo guziak, euskotarren asmo ta naiak ba dira, gaurko mundu giroaren gure erriaren erantzunak dira, ta gureak dira. Ta asmo berri oiek gure arteko arazoak sortu dituzte.

Gure Jaurlaritzaren lealpen edo erresponsabilidatea zutik dago: askatasunaren alde jokatzan ari diran buru izan bear du; alderdiak ori dira, alderdiak; jaurlaritzan alderdi guzien buru izan da, ta izaten jarrai bear du. Danen gustora ez dala? Oientzat ere elburu oberik ez dago, utsa gutxiago da ta. Eta gure Jaurlaritzan zerbaitetzat daukagunontzat, gaurko bide on bat da.

Ta bide onetan alkar ikusi geniteke.

Bide au jarri bear genduke ba da lenbailen lanean, alkar ikusi ta errespetatuko ba gera. Alderdietako bideetan alkar ikusten ez ba gera, gure Jaurlaritzaren bide zabalean alkar ikusi ta itz egin bear genduke beintzat.

Len, orain dala 29 urte, euskotarrak (naiz eta alderki ezberdiñekoak izan) alkar ikusi ta itzegin eta lan egin zuten bezela.

Oraindik guda bizian gaude gero!

Orretarako Jaurlaritzan berak egitazko gaurko ibili-bide bat egiteko erresponsabilidatea ba du; alderdi ta talde bakoitzak ere berea bai. Zentzurik ba degu, gure ixtorian gure erria ikusi ta ezer ikasteko diña ba gera, bide au arkitu bear degu.

Oraindik egin genezakena da.

Geroko negarrak ez du Euzkadi'rik azkatuko.